



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0012

Eguna: 2024-11-26

Ordua: 19:00 – 20:00

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Larraitz Eizagirre Zaldua, ordezeko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

1. 2024ko urriaren 29ko akta onartzea.
2. Tokiko gobernu batzordeko kideen izendapen berria.
3. 2025eko udal-aurrekontua: emendakinak erantzutea eta hasierako onarpena.
4. 2025eko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.
5. "HEA 21 Zarkumendegi" eremuko hiritartze proiektuaren aldaketa: hasierako onarpena.
6. Adierazpen proposamena, Euskararen Nazioarteko eguna.
7. Informazio, galdera eta eskariak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2024ko urriaren 29ko akta onartzea.

Akta, aho batez, onartu da.

2.- Tokiko gobernu batzordeko kideen izendapen berria.

Alkateak 1331/2024 Dekretuaren berri eman du, tokiko gobernu taldeko kideen izendapen berriari buruzkoa, eta erabaki hori hartzearen arrazoiak eman ditu.

3.- 2025eko udal-aurrekontua: emendakinak erantzutea eta hasierako onarpena.

Alkateak aurrekontua osatzeko jarraitu den prozedura azaldu du, eta adierazi udalaren aurrekontua 13.172,435 eurokoa dela, eta aurrekontu bateratua 13.646.462 eurokoa, iazkoa baino %7 handiagoa, eta horren zergatiak azaldu ditu.

Jarraian aurrekontuaren ezaugarri nagusiak aurkeztu ditu kapituluka, eta azaldu du gastuen atalean udal sailek azken bi urteetan izandako bilakaera, adieraziz –besteak beste– sail guztietan, obra-zerbitzuetan izan ezik (jeitsi egin dela inbertsioak jeitsi direlako, Apeztegiko igoilua bezalako inbertsioarik ez dagoelako), aurrekontua igo egin dela, eta bereziki bitan igo dela (euskara-hezkuntza eta kultura-jaiak-kirola-gazteria), AEKko lokala egokitzeko lanak eta kiroldagiko obraren eraginez. Ondoren gastuen argibide eta daturik esanguratsuenak eman ditu, eta igoeraren nondik norakoak eta horien zergatia azaldu ditu, adieraziz, besteak beste: herritarren politika eta zerbitzu sozialak atalak aurrekontu osoaren %46a dela (iaz baino %7a gehiago), pertsonalen kapitulua %5a igo dela eta dirulaguntzak %11a. Bukatzeko, inbertsio atalean jasotakoak azaldu ditu: kiroldagiko obra, euskaltegi berria, uraren zikloaren digitalizazioa, ur-kontagailuen aldaketa, bidegorri sarea osatzea, Latxaga-Olabide bideko lanak, proiektuak idaztea (udal lokalak, Juangitene plazaren ur-arazoak, Ergobia plazatoxa, Txalakako bidegorria, Santigomendiko II. fasea...), partehartze-prozesuak, irisgarritasuna, etxebizitza...

Ondoren, hitza pasa die oposizioko bozeramaileei.

Maria zinegotziak hitza hartu eta aurreratu du bere taldeak kontra bozkatuko duela. Adierazi du aurreko urtean beren emendakinak astakerizat hartu zirenez, beste modu batera aurkeztea erabaki dutela. 5 proposamen egin dituztela (zahar egoitza berria eraikitzea, aparkalekuen azterlana egitea, hilerrira igotzeko igogailua edo eskailera mekanikoak jartzea, udaltzaingoaren aldagelak hobetzea, eta plenoak zuzenean ikus, entzun eta grabatzeko instalazioa egitea); eta onartuz gero, ikusiko zela nola bideratu. Jarraian proposamen horiek egin izanaren arrazoiak eman ditu, eta adierazi du kasu batzuetan jakin nahi zela auresikusia zegoen, non eta horren zenbatekoa.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta alkateari eskerrak eman ondoren, ogasun batzordera joaterik izan ez zuenez berarekin elkartu izanagatik, aurkeztu dituen emendakinak azaldu ditu (merkatu estalia, Donostia ibilbidean semaforoa jartzea, karabanen kudeaketa publikoa, turismo helmuga bulegoa sortzea, aurreikusitako partida batzuen zenbatekoa handitzea edo EHBildurentzat kontusail tronkalak direnak kentzea) eta horiek aurkeztearen arrazoiak eman ditu. Gaineratu du bilera ondoren emandakin batzuk aldatzeko aukera ere eman duela, esaterako, semaforo jarri behar diren txostena eskatzea kanpo enpresa bati, baina hori ere ez zaiola onartu.

Alkateak María zinegotziari zuzendu zaio, eta adierazi aurrekontua aurkeztu zenetik hilabetera eskatu dituela argibideak, eta emendakinak ere epe barruan aurkeztu behar zirela. Bestetik, adierazi du ez duela ulertzen nola aurkeztu dituzten zenbatekorik gabeko emendakinak, kreditu nahikorik gabe edukia



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Sekretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ezinezkoa baita. Amaitzeko, zuzenketak ez onartzeko arrazoiak eman dizkio: zaharren egoitzako eskumena Aldundiarena izatea, eskalera mekanikoak irisgarriak ez izatea gurpildun aulkientzako edota haurren aulkientzako, igogailua estrategikotzat hartu arren irisgarritasun planean, finantzatzeko dirurik ez egotea kiroldegiko obrak lehentasuna duelako.

Ondoren, alkatea Patxi zinegotziari zuzendu zaio, eta berak aurkeztuko emendakinak ez onartu izanaren arrazoiak eman dizkio: azoka estalia aurrekontu partehartzailearen emaitza izatea, udaltzainen ez ikustea semaforoaren beharra eta gainera bat ez izatea aski, eta oinezkoentzako lehentasuna beste modu batera lortu ahal izatea, kirol egokituaren gaia aztertzen ari den gaia izatea, edota autokarabanen eremuaren kudeaketa momentu honetan lehentasuneko gaia ez izatea.

Manex zinegotziak hartu du hitza eta proposatu du beste urte batzuetarako aurrekontuaren zati bat (esaterako, % 1) oposizioaren proposamenetarako gordetzea.

Alkateak proposamenaren bideragarritasuna zalantzan jarri du, eta adierazi du oposizioak aurkeztutako proposamenak oso onak izan balira, onartuko lituzketeela.

Andoni zinegotziak erantzun dio oposizioak esfortzu bat egin behar duela eta zehaztu behar dutela beren proposamena bideratzeko zer kenduko luketen; eta aurpegiratu dio zergak igotzearen kontra bozkatzea eta aurrekontuaren zati bat gordetzeko eskatzea.

Maria zinegotziak argitu dio zinegotziak planteatu duena ez dela aurrekontu zati bat oposizioak kudeatzeko uztea, oposizioak aurkezten dituen proposamentzat baizik, eta horiek gero denen artean hautatuko lirakeela.

Manex zinegotziak, berriz, argitu du egin duen proposaman EHBilduk jaurlaritzan eskatu duen gauza bera dela.

Ondoren, alkateak Ogasuna eta Ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehena.- PSE-EE taldeak egindako emendakinak EZ onartzea (5286 sarrera zenbakia).

Bigarrena.- EHBILDU taldeak egindako emendakinak onartzea (5293 sarrera zenbakia).

Hirugarrena.- EAJ-PNV taldeak egindako emendakinak EZ onartzea (5325 sarrera zenbakia).

Laugarrena.- 2025eko aurrekontuari eransten zaizkion emendakin onartuekin, 2025eko Aurrekontu Orokorra bateratuari eta hura osatzen duten dokumentuei hasierako onespena ematea.

Bosgarrena.- 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2025eko Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzeko espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunetan, eta, alegaziorik izan ezean, behin betiko onartutzat jotzea, erabakirik eman beharrik gabe.

Seigarrena.- Hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta kontrako 4 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena eta Udal talde euskal sozialistarena).

4.- 2025eko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.

Alkateak zerga fiskalak jenduarrean egon diren bitartean aurkeztu diren alegazioen berri eman du eta horien nondik norakoak azaldu ondoren, Ogasuna eta Ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehenena.- *Kirola eta gazteriako teknikariak (5276 sarrera zenbakia) eta EHBILDU taldeak (5400 sarrera zenbakia) eginiko alegazioak onartzea.*

Bigarrena.- *Ordezko kontu-hartzaileak (5075 sarrera zenbakia) eginiko alegazioa partzialki onartzea. "3.5. Udal lokalak erabiltzea: VI.- Salbuespenak eta Hobariak" atalari dagokionez, EHBILDU taldeak eginiko proposamena onartzea.*

Hirugarrena.- *Onartu diren alegazioekin, 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den zerga-ordenantzaren Testu Bategina, behin betirako onartzea.*

Laugarrena.- *Zerga-ordenantzaren Testu Bategina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena), kontrako 3 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena) eta abstentzio 1ekin (Udal talde euskal sozialistarena)

5.- "HEA 21 Zarkumendegi" eremuko hiritartze proiektuaren aldaketa: hasierako onarpena.

Alkateak proiektuaren aldaketa izapidetzearen arrazoiak azaldu ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- *Hasierako onarpena ematea Endara Ingenieros Asociados SLk 2024ko ekainean idatzitako "Astigarragako Zarkumendegi industrialdea urbanizatzeko proiektuaren aldaketari", udal-arkitektoak 2024ko azaroaren 14ko txostenean ezarritako baldintzekin.*

Bigarrena.- *Dokumentua jendaurrean jartzea 20 egun baliouduneko epean, eta erabakia GAOn eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea. Era berean, udalaren iragarki-taulan eta udalaren webgunean (www.astigarraga.eus) argitaratuko dira dokumentuak.*

Hirugarrena.- *Txosten sektoriala eskatzea, "Zarkumendegi" 21 HJEaren Urbanizazio Proiektuaren Aldaketa honako administrazio eta erakunde hauei bidaliz:*

- *Uraren Euskal Agentzia.*
 - *Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia.*
 - *AGASA (Añarbeko Urak).*

Laugarrena.- *Erabakia Construcciones Moyua S.Lri jakinaraztea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

6.- Adierazpen proposamena, Euskararen Nazioarteko eguna.

Alkateak azaldu du adierazpen instituzionalaren testua osatu dutela Hizkuntza Berdintasunerako Europako Sareak (ELEN) egin berri duen jardunaldian onartutako manifestoa oinarri hartuta. Jarraian, testu hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian European Language Equality Network (ELEN) erakunde onartu berri duten adierazpenari heldu nahi diogu.

Euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuaren azken hamarkadetako susperraldia moteldu denaren zantzuak agerikoak dira azken urteetan. Hiztun kopurua zenbaki absolutuetan handitzen



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

doan arren, hainbat dira aurrerapen horren ahultasuna agerian uzten duten gertakariak. Iaz plazaratutako VII. Inkesta Soziolinguistikoan jasotako batzuk aipatzearen, Ipar Euskal Herrian hiztun kopuru erlatiboa apalduz doa oraindik, Nafarroan hamar ikasletik seik ez du inolako harremanik euskararekin bere ikasketa prozesu guztian, Euskal Autonomi Erkidegoko gune euskaldunenetan atzera egiten ari da euskararen erabilera, eta Euskal Herri osoko joera da euskaraz erdaretan baino errazago moldatzen diren hiztunak gero eta gutxiago direla. Zenbakietara etorruta, hiztunen % 17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak baino gehiago erabiltzen dutenak. Hau da, hizkuntza baten osasunaren adierazgarri behinena den erabilera soziala ahula da, eta hizkuntza praktikak orokorrean hartuz are eta gehiago ahultzeko joeran da.

Ahultasun horrek lotura estua du euskararen eta euskararen hiztun komunitatearen estatusarekin. Jakina den bezala, bere lurraldeko eremu zabal batean ukatua dauka ofizialtasuna. Eta ofiziala den eremuan, euskararen aldeko hizkuntz politikak eraisten ari diren epai sorta gertatzen ari da, normalizazio eta biziberritzearen aurkako oldarraldi judizial gogorra.

Halaber, globalizazioaren egungo bilakaerak, mugikortasunak eta errealitate sozio-demografikoaren bilakaerak erronka berriak ezarri dizkio normalizazio eta biziberritze prozesuari, baita bizitzaren digitalizazio eta merkantilizazioak ere. Globalizazioaren eta bizitzaren digitalizazioaren eraginez hizkuntza hegemonikoak are eta hegemonikoago dira, eta hizkuntza minorizatuak are eta zaugarriago.

Hori guztia aintzat harturik, ELEN erakundeak euskara eta euskal hiztunen komunitatea larrialdi linguistikoan dagoela ohartarazi du. Hau da, indarrean diren joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak iraultzeko neurri egokiak epe laburrean hartu ezean, atzeraldia datorrela. Hizkuntz politikan jauzi bat egin ezean, bizigarritasun soziala irabazi ordeztu galtzen hasteko bidean direla. Nolanahi dela, larrialdi linguistikoan dagoela adieraztea ez da arrangurarako deia, baizik eta euskararen normalizazio eta biziberritzea onbideratzeko lehen urratsa emateko modua.

Badakigu egoera iraultzeko lehen eginkizuna auzi hau agenda politiko eta sozialaren ardatzean jartzea dela. Horrenbestez, euskararen normalizazio eta biziberritzeak lehentasunezko ekinbidea eskatzen du. Eta prozesu honek guztiok behar gaitu.

Hori guztia esanda, Astigarragako Udalak honakoa adierazten du:

- 1.- Konpromisoa hartzen du bere eremuan larrialdiari aurre egiteko eta euskararen normalizazioa azkartzeko ekinbideak garatzeko.*
- 2.- Euskararen erabilera handitzeko hizkuntza ohituretan eragitea helburu duen Euskaraldia antolatzen hasiko garen honetan, konpromisoa hartzen du ariketa sozial horren bueltan elkarlanerako bideak sortu eta Astigarragan euskarak arnasmune berriak irabazteko lanean jarraitzeko.*
- 3.- Gonbidea egiten die astigarrarrei abenduaren 3an Astigarragan nahiz Euskal Herriaren luze zabalean antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena onartu da aho batez.

7.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Abenduko batzordeak eta osoko bilkura.

Alkateak azaldu du abenduko azken asteartea hilak 31a denez, eta aurrekoa 24a, osoko bilkura eta tokiko gobernu batzarra abenduaren 19an egingo direla, eta batzorde informatiboak aurreko astean.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

b.- udal langileak.

Alkateak azaldu du Aldundiak kontuhartzaile berriaren izendapena egun batetik bestera egingo duela, M.A izango dela kontuhartzaile berria eta behin-behineko salbuespenezko izendapena izango dela.

Bestetik, eta udalak azken urtean egin dituen hautaketa-prozesuei dagokionez, adierazi du Obra eta Zerbituetako arduraduna eta Arkitekto Teknikoa plazarena ere bukatu dela, eta teknikari berria urtarrilaren hasieran hasiko dela lanean.

c.- Aurrekontuaren memoria

Maria zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du, bere proposamena onartuko ez dela jakin arren, eskatzen duela aurrekontuekin batera memoria bat ematea – beste udalerrri batzuetan egiten den bezala – eta hori izan daitekeela, esaterako, aurrekontuak aurkezteko osoko bilkuran erabili den dokumentua.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2024ko azaroaren 26an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria.